## Formazioko ikertzaileak: Behin betiko konponketaren alde

Aurreko komunikatu batean kritikatzen genuen formazioko ikertzaileen kontratuak abisatu gabe eta atzera eraginarekin aldatuak izan zirela estatuan eta UPV/EHUn. Atzo CRUEk komunikatu batean eskatu zuen formazioko ikertzaileen kontratuetan aplikatutako aldaketak tenporalki bertan behera uztea. LABek egoki ikusten du neurri hau eta kontratu predoktoralak, garatzea aldarrikatzen du, Zientzia Legean definitutakoak, eta **berariazko kontratuak** egitea formazioko ikertzaileentzako arazoak betiko konpontzeko. Atzera eragina ez zela legezkoa nahiko argi badago ere azkeneko kontratuak praktiketakoak izan dira eta, beraz, aldatu beharko lirateke. **LABek exijitzen dio UPV/EHUri aldaketa hauek ahalik eta lasterren egitea** eta dagoeneko irakasle-ikertzaileen errektoreordeari eskatu zaio. Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak irakasle-ikertzaileen dekretua eguneratu beharko luke, beste gauzen artean, irudi hau EAEn garatzeko**.